7. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari 2023ko maiatza baino lehen jakinaraz ditzala isuri gutxiko eremu misto bat sortzea justifikatzen duten airearen kutsadura-indizeak.

8. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari 2023ko maiatza baino lehen jakinaraz ditzala Datorren Donostia proiektua aurkeztu aurretiko airearen kutsadura-indizeak.

9. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari 2023ko maiatza baino lehen jakinaraz dezala motozikletek hirigunetik zirkulatzerik izango duten.

Donostia, 2023ko martxoaren 23a

Borja Corominas Fisas,
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea".

los estudios, del departamento de movilidad, o asistencias técnicas, que llevaron a tomar la decisión de cambiar de sentido las calles Zubieta y San Martín.

7. El Pleno del Ayuntamiento insta al equipo de gobierno a hacer públicos, antes de Mayo del 2023, los índices de contaminación del aire que justifican la creación de una Zona de Bajas Emisiones Mixta.

8. El Pleno del Ayuntamiento insta al equipo de gobierno a hacer públicos, antes de Mayo del 2023, los índices de contaminación del aire previos a la presentación del proyecto Datorren Donostia.

9. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a hacer publica, antes de Mayo del 2023, su intención respecto a si las motocicletas podrán o no circular por el centro de la ciudad.

En San Sebastián, a 23 de marzo de 2023

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D.ª Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – (3) PP, (3)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – (3) PP, (3)**

**ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (10) EAJ/PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (10) EAJ/PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, erabilera turistikoko pisuak kontrolatzeko unitatea berriro ezartzeko beharrari buruzkoa.**

“Ricardo Burutaran Ferré EH BILDU udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, KONTROL-MOZIO hau aurkezten du, berriz ere erabilera turistikoko etxebizitzak kontrolatzeko unitatea ezartzeko beharrari buruz. Kontrol-mozio hau 2023ko martxoaren 20an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Badirudi Udal Gobernuak onartu duela arazo bat dugula turismo-ostatuen ugaritze esponentzialarekin –horien artean daude, zalantzarik gabe, erabilera turistikoko etxebizitzak–. Hala, bada, beharrezkoa da sektore horretan jarduera klandestinoak kontrolatzeko mekanismoak ezartzea edo berreskuratzea.

Ildo horretan, Udal Gobernuak erabaki zuen gure hirian horrelako jarduerak legearekin bat egiten direla kontrolatzeko sortu zen unitate espezifikoa «desegitea». Udal Gobernuak erabaki hori zergatik hartu zuen azaltzean, argudiatu zuen, pandemian ezarritako murrizketen ondorioz, behera egin zuela erabilera turistikoko etxebizitzen kopuruak. Ez dirudi gaur egun aipatutako argudio

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la necesidad de implementar nuevamente la unidad de control de pisos de uso turístico.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre la necesidad de implementar nuevamente la unida de control de pisos de uso turístico. La moción de control es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrrollo y Planificación del Teritorio el pasado 20 de marzo de 2023.

JUSTIFICACIÓN

Una vez el Gobierno Municipal parece haber admitido la existencia de un problema con la proliferación exponencial de alojamientos turísticos, entre los que, irrefutablemente, se encuentran los pisos de uso turístico, se hace necesario instaurar y/o recuperar mecanismos de control de actividades clandestinas en este sector.

En este sentido, el Gobierno Municipal decidió “disolver” la unidad específica creada al objeto de controlar el cumplimiento de la legalidad del funcionamiento de este tipo de actividades en nuestra ciudad. En el momento de explicar los motivos que llevaban al Gobierno Municipal a adoptar la citada decisión, se justificó la misma con el argumento de la reducción de pisos de

horrek balio duenik.

uso turístico motivados por las restricciones de la pandemia. No parece que en la actualidad subsista la citada motivación.

Bestalde, EHUko ikasleen kolektiboak azterlan bat egin zuen Donostiako erabilera turistikoko pisuen eskaintzari buruz. Azterlan horren arabera, jarduera horretako eskaintza 1.659koa izan zen, hain zuzen ere Udalak legezko jarduera gisa egiaztatutako etxebizitza kopurua baino askoz ere gehiago. Horrek agerian uzten du esparru horretan «esku hartu» behar dela.

Por otra parte, un colectivo de alumnos de la UPV/EHU, elaboró un estudio sobre la oferta de pisos de uso turístico en Donostia cifrando el número de este tipo de actividades en 1.659, cantidad netamente superior a los datos de actividades reconocidas como legales por el propio Ayuntamiento, lo que evidencia la necesidad de “actuar” al respecto.

Ildo berean, jarduera mota horien inguruan hainbat plataformak egiten duten monitorizazioak ere berresten ditu EHUko ikasleen azterlan horren emaitzak.

En este mismo sentido, la monitorización que realizan diversas plataformas sobre este tipo de actividades también corroboran las conclusiones del citado estudio de los estudiantes de la UPV/EHU.

Alkatea horri buruz interpelatuta, Herri Segurtasuneko ordezkariak baieztatu zigun unitate espezifiko hori desagertu egin dela, baina haren eginkizunak UOKUk hartu dituela bere gain, eta, funtsean, alderdi batek eskatuta jarduten duela, partikularren edo jabeen erkidegoen salaketen ondorioz.

Interpelado al respecto el alcalde, el delegado de Seguridad Ciudadana nos confirmó que la citada unidad específica había desaparecido, pero que la UCOM había asumido sus funciones y que actuaba fundamentalmente a instancia de parte, denuncias de particulares y/o de comunidades de propietarios

Udal-zerbitzu teknikoek erabilera turistikoko pisuen jarduerak ikuskatzeari dagokionez, gogorarazi behar dugu gaur egun jakinarazitako jardueratzat hartzen direla, hau da, administrazioaren kontrola jarduera abian jarri ondorengoa dela; zinegotziak baieztatu zigun bereizketen ondorioz sortutakoak edo salaketaren bat izan dutenak ikuskatu direla.

Con respecto a la inspección de las actividades de piso de uso turístico por parte de los diversos servicios técnicos municipales, tenemos que recordar que actualmente se consideran como actividades comunicadas, es decir, que el control de la administración es posterior a la puesta en marcha de la actividad; nos confirmó que se han inspeccionado las que surgen como consecuencia de segregaciones o en el caso de que se hayan recibido denuncias.

Hau da, besteak beste, unitate espezifikorik ez dagoenez eta UOKUn lan-karga handia dagoenez, ezin izan da egiaztatu plataformen bidez merkaturatzen ari diren erabilera turistikoko pisuak klandestinoak ez direla, ezta funtzionamenduan dauden jarduerek legez

Es decir, que debido, entre otras cosas, a la falta de una unidad específica y a la carga de trabajo existente en la UCOM, no se ha podido verificar ni que los diferentes pisos de uso turístico que se están comercializando a través de las distintas plataformas no resulten clandestinos, ni

ezarritako baldintzak betetzen dituztela ere.

Hori guztia dela eta, hau da nire KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, erabilera turistikoko etxebizitzen eskaintza klandestinoa desagerrarazten saiatze aldera –izan ere, okertu eta batzuetan jasanezin ere egiten dute kokatuta dauden komunitateetako bizikidetza, eta, aldi berean, auzoetako etxebizitzen prezioa garestitzea dakarte–, ezar dezala berriz ere erabilera turistikoko etxebizitzak eta logelak kontrolatzeko unitate espezifikoa, edo, bestela, eman ditzala eman beharreko jarraibideak etxebizitza horiek kontrolatzeaz arduratzen diren zerbitzu teknikoak indartzeko.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eman ditzala eman beharreko jarraibideak udaleko zerbitzu tekniko eskudunek egiaztatze-prozesu bati ekin diezaioten, produktu mota horren plataforma espezifikoen bidez merkaturatzen diren etxebizitza turistikoek aplikatzekoa zaien hirigintza-legeria betetzen dutela egiaztatzeko.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari erabaki dezala erabilera turistikoko etxebizitzak eta logelak ikuskatzeko bisitak egitea, aplikatzekoak zaizkien legezko baldintzak, edukiera barne, betetzen dituztela egiaztatzea, eta, ez-betetzerik hautemanez gero, dagozkion legezko neurriak hartzea.

Donostia, 2023ko martxoaren 24a

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré
EH Bildu udal-taldeko zinegotzia”.

que las actividades en funcionamiento cumplan con los requisitos legalmente establecidos.

Por todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, al objeto de tratar de erradicar la oferta clandestina de viviendas de uso turístico, que perjudican la convivencia en las comunidades donde están radicadas haciéndolas, en ocasiones, insostenibles, al tiempo que contribuyen a un encarecimiento del precio de la vivienda en los barrios, implemente, de nuevo, la unidad específica de control de viviendas de uso turístico y de habitaciones de uso turístico o, en su defecto, dé las instrucciones necesarias para reforzar el servicio o servicios técnicos que se encarguen de controlar las mismas.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que dé las instrucciones necesarias para que, por parte de los servicios técnicos municipales competentes. se inicie un proceso de verificación de que las viviendas turísticas que se comercializan a través de las plataformas específicas de este tipo de producto cumplen con la legalidad urbanística que resulta de aplicación.

3.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que acuerde la realización de visitas de inspección y de verificación del cumplimiento de las condiciones legales de aplicación de las viviendas de uso turístico y de las habitaciones de uso turístico, incluyendo el aforo, acordándose las medidas legales oportunas en caso de detectarse incumplimientos.

Donostia, a 24 de marzo de 2023

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del Grupo Municipal EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Ricardo Burutaran Ferré, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**6. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**UNANIMIDAD.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**MAYORÍA.**
**AHO BATEZ.**
**ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

**6. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**UNANIMIDAD.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**MAYORÍA.**
**AHO BATEZ.**
**ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

**6. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (10) EAJ/PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (10) EAJ/PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Santa Klara Uharteko naturgunearen erabilera eta gozamena arautzeko jarraibideei buruz.**

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziak Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko martxoaren 20ko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Laster bi urte beteko dira Santa Klara uharteko “Hondalea” eskultura inauguratu zenetik. Proiektuaren inguruan polemika ugari egon da, eta kezka nagusia artelanaren kokalekuak eragin du. Horrela adierazi zuten, esaterako, BiziLagunEkin plataformak, Eguzki talde ekologistak, Haritzalde Naturzaleen Elkarteak eta Parkea Bizirik Kulunbera elkarteak 2020ko urriaren 12an egindako agerraldian. Donostiako Udal Gobernuak uharteko lanak amaitzeko denbora gutxi falta zela iragarri zuela eta, aipatu elkarteek proposamen zehatzak egin zizkioten proiektuaz arduratzen ari zen lantaldeari, Santa Klara uhartean babes neurriak ezartzeko: “Uste dugu aukerak daudela uhartearen turisitifikazioa, masifikazioa eta bertako natura-ingurunea hondatzea saihesteko”. Horretarako, espazioa modu eraginkorrean babesteko,

**II.2.7. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las directrices para regular el uso y disfrute del espacio natural de la Isla de Santa Clara.**

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas del 20 demarzo de 2023.

JUSTIFICACIÓN

Pronto se cumplirán dos años de la inauguración de la escultura «Hondalea» en la isla de Santa Clara. El proyecto despertó gran polémica, y la principal preocupación ha sido el lugar donde se ubica la obra de arte. Así lo manifestaron, por ejemplo, la plataforma BiziLagunEkin, el grupo ecologista Eguzki, la Asociación de Naturalistas Haritzalde y la Asociación Parkea Bizirik Kulunbera, en su comparecencia del 12 de octubre de 2020. Ante el anuncio por parte del Ayuntamiento de San Sebastián de la inminente finalización de las obras de la isla, las citadas asociaciones realizaron propuestas concretas al grupo de trabajo encargado del proyecto, para la implantación de medidas de protección en la isla de Santa Clara. Consideraban, por ejemplo, que existe la posibilidad de evitar la turistificación, la masificación y el deterioro del medio natural de

ezinbestekotzat jo zuten uhartearen kudeaketa-eta erabilera-plan bat eratzea, zeinak etorkizunean bertan garatu ahalko diren jarduerak eta horien ezaugarriak arautuko zituen. Eta erabilera-plan horrek jaso beharko lituzkeen hainbat neurri ere proposatu zituzten, besteak beste: Uhartearen irekiera sasoiak eta joan-etorrietarako epeak gaur egun Santa Klarari eragiten dion 2002ko udal bandoak definitzen duena izaten jarraitzea, urtean 4 hilabetekoa, alegia.

la isla. Para ello, para la efectiva protección del espacio, se consideró imprescindible la elaboración de un plan de gestión y uso de la isla que regulara las actividades que se podrán desarrollar en el futuro en ella y las características de dichas actividades. Y se propusieron una serie de medidas que debería recoger este plan de uso, entre las que se encuentra que la temporada de apertura de la isla y el plazo para los desplazamientos siga siendo el definido por el Bando Municipal de 2002, que rige actualmente en Santa Clara, es decir, de 4 meses al año.

2002ko ekainaren 21ean argitaratu zen Odón Elorzak sinatutako “Bando del alcalde sobre uso y disfrute de la isla de Santa Clara”, hain zuzen ere, 1964 eta 1967 artean "Centro Histórico de Interés Nacional" izendatu zen naturgunearen erabilera eta gozamena arautzeko helburuarekin. Lehenengo atalean zehazten da “Uharterako sarbidea”, eta honela dio lehenengo artikuluak:

> 1.- El público podrá acceder a la Isla de Santa Clara en el período comprendido del 1 de junio al 30 de septiembre, no pudiendo permanecer en la misma fuera de las horas diurnas.

Hala ere, itsasargiko lanak egin bitartean, Udal Gobernuak behin baino gehiagotan adierazi zuen uhartea bisitatzeko epea luzatzeko asmoa. Gauzak horrela, lanak amaitu aurreko hilabeteetan hainbat bilera izan ziren proiektuko arduradunen nahiz udal gobernuko kideen eta talde ekologisten artean. Haritzalde, Parkea Bizirik, Bizilagunekin eta Eguzki elkarteek 2023ko martxoaren 16an kaleratutako agirian diotenez: Topaketa horien helburua zen uhartean turismo-jardueraren handitzeari mugak jartzea eta azpiegitura honek ekosisteman, ondare historikoan eta donostiarrek uharteari eman dioten erabileran duen eragin negatiboa

El 21 junio de 2002 se publicó el «Bando del alcalde sobre uso y disfrute de la isla de Santa Clara», firmado por Odón Elorza. Entre los años 1964 y 1967, la isla fue denominada «Centro Histórico de Interés Nacional», con el objetivo de regular el uso y disfrute de esa zona natural. En el apartado primero, se detalla el «Acceso a la isla», y el artículo primero dice:

> 1.- El público podrá acceder a la Isla de Santa Clara en el período comprendido del 1 de junio al 30 de septiembre, no pudiendo permanecer en la misma fuera de las horas diurnas.

Sin embargo, mientras se llevaban a cabo las obras del faro, el Gobierno Municipal manifestó en varias ocasiones su intención de ampliar el plazo de visita a la isla. Así las cosas, en los meses previos a la finalización de los trabajos, se mantuvieron reuniones entre los responsables del proyecto, los miembros del gobierno municipal y los grupos ecologistas. Según el documento hecho público el 16 de marzo de 2023 de Haritzalde, Parkea Bizirik, Bizilagunekin y Eguzki, el objetivo de estos encuentros era limitar el aumento de la actividad turística en la isla y reducir el impacto negativo de esta infraestructura en el ecosistema, el patrimonio

murriztea. Hain zuzen, bilera horietan ordutegia, egutegia eta bisitari kopurua mugatzea jarri ziren mahai gainean, baita uharteko bisitei lotutako zerbitzuak eta azpiegiturak murriztea ere.

histórico y el uso que la población donostiarra ha hecho de la isla. En concreto, en dichas reuniones se pusieron encima de la mesa la limitación de los horarios, del calendario y del número de visitantes, así como la reducción de los servicios e infraestructuras asociados a las visitas a la isla.

Artelanaren jendaurreko aurkezpenean, azkenik, bisitak bost hilabetera (maiatza-iraila) mugatuko zirela iragarri zen. Santa Klara uhartearen irekiera sasoi berria 2002ko Alkatearen Bandoan jasotakoa baino hilabete bat gehiago luzatzen bazen ere, erabaki honek nolabaiteko adostasuna izan zuen bai talde ekologista bai talde politikoen aldetik. Horregatik, Eneko Goia alkateak martxoaren 1ean egindako adierazpenak guztiz ustekabekoak izan ziren, Hondalea aurten Aste Santuan irekiko dela esan baitzuen. Arestian aipatutako elkarteek "duela bi urte adostutakoa alde bakarretik hausten dela" salatu dute.

En la presentación pública de la obra de arte, finalmente, se anunció que las visitas se limitarían a cinco meses (mayo-septiembre). Si bien el nuevo plazo de apertura de la isla de Santa Clara se prolongaba un mes más respecto a la recogida en el Bando del Alcalde de 2002, este acuerdo obtuvo cierto consenso, tanto por parte de las agrupaciones ecologistas como por parte de las formaciones políticas. Por ello, las declaraciones del alcalde Eneko Goia el día 1 de marzo fueron totalmente sorprendentes, ya que dijo que este año Hondalea se abrirá en Semana Santa. Las asociaciones mencionadas anteriormente denuncian la ruptura unilateral de lo acordado hace dos años.

2023ko martxoko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean albiste honi buruz galdetuta, Kulturako eta Euskarako zinegotzi ordezkariak erantzun zuen orain arte Hondalea-ren kudeaketa Alkatetzak eraman badu ere, aurrerantzean Kultura Sailaren esku geratuko dela, eta honenbestez, aurten eskultura bisitatzeko aukera apirilera luzatu izana saileko langileak trebatzeko ariketa bat izango dela. Hala ere, erantzun hori ez dator bat Eneko Goiak hedabideen aurrean esandakoarekin. Izan ere, alkateak adierazi zuenez, "apirileko irekiera epeak publikoaren erantzuna aztertu nahi du udako denboralditik kanpo egon daitezkeen bisiten eskaria baloratzeko", eta bisitaldi epea horren arabera egokitzeko.

A la pregunta que se hizo, en la Comisión de Servicios a las Personas de marzo de 2023, en relación a lo anunciado por el alcalde, el concejalde Cultura y Euskera respondió que, si bien hasta ahora la gestión de Hondalea ha sido asumida por la Alcaldía, en adelante quedará en manos del Departamento de Cultura, por lo que la ampliación de la visita a la escultura este año hasta abril será un ejercicio de adiestramiento del personal del Departamento. Sin embargo, esta respuesta contrasta con lo manifestado por Eneko Goia ante los medios de comunicación. Y es que, según señaló el alcalde, con la decisión de ampliar la apertura al mes de abril lo que se pretende es analizar la respuesta del público para valorar la demanda de visitas fuera de la temporada estival y adecuar el plazo de visitas en función de ello.

Gaur-gaurkoz, herritarren eskura dagoen Santa

A día de hoy, el único documento público de que

Klara uharteko erabilerari buruzko agiri publiko bakarra 2002ko ekainaren 21eko Alkatearen Bandoa da. Klima Larrialdia areagotzen ari den testuinguru honetan, gainera, nazioarteko eta bertako adituek behin eta berriro nabarmendu dute hirietan ingurune naturalak zaintzea eta babestea zeinen garrantzitsua den. Eta gaur, 2023ko martxoan, esan gabe doa Donostian turistifikazio prozesuei neurria jartzea ezinbestekoa dela.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari landu eta argitaratu ditzala Santa Klara uharteko naturgunearen erabilera eta gozamena arautzeko jarraibideak.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bete ditzala, Santa Klararen erabileraren behin betiko araudia osatu bitartean, uharteko denboraldiei, edukierei, ordutegiei eta dotazioei buruz, nahiz bertan zerbitzu eta azpiegitura berriak zabaltzeari buruz elkarteekin egindako akordioak.

Donostian, 2023ko martxoaren 24an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

dispone la ciudadanía sobre el uso de la Isla de Santa Clara es el Bando del Alcalde, de 21 de junio de 2002. Por otro lado, en un contexto en el que la Emergencia Climática está agravándose, los expertos internacionales y locales han puesto de relieve la importancia de la conservación y protección de los entornos naturales en las ciudades. Y hoy, a marzo de 2023, es evidente que en San Sebastián es necesario poner un límite a los procesos de turisficación.

Por todo lo expuesto, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a elaborar y publicar las directrices que regulen el uso y disfrute del espacio natural de la Isla de Santa Clara.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, mientras no se elabore la normativa definitiva de uso de Santa Clara, cumpla los acuerdos alcanzados con las asociaciones sobre temporadas, aforos, horarios y dotaciones de la isla, así como sobre la ampliación de nuevos servicios e infraestructuras en la misma.

San Sebastián, 24 de marzo de 2023

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga,
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Bixente Mirena Sacristan Esteban jaunak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Jon Insausti Maisterrena jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, D. Bixente Mirena Sacristán Esteban, D. Jorge Mota Iglesias, D. Jon Insausti Maisterrena y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**7. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (10) EAJ/PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (10) EAJ/PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**7. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (10) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (4) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (10) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (4) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, euskarazko hedabideetan publizitate eta komunikazio kanpaina instituzional gehiago kontratatzeari buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk mozio hau aurkezten du Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta,

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la contratación de más campañas institucionales de publicidad y comunicación en los medios de comunicación en euskera.**

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la

Udalbatzan azter dadin. Mozioaren oinarria 2023ko martxoaren 20an Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioan dago.

siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios Generales el 20 de marzo de 2023.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

2020ko urrian, EH Bilduk iradokizun bat egin zion Udal Gobernuari Donostiako Udalaren publizitate instituzionala gutxienez erdarazko hedabideetan adina kontratatu dezan euskarazkoetan. Gainera, udal talde honek proposatu zuen neurri hori indarrean jartzea iradokizuna aurkeztu eta hurrengo hilabetetik aurrera, horretarako komunikazio sailaren protokoloetan txertatuta. Gobernantzako zinegotzi ordezkariak erantzun zuen kontuan hartuko zutela proposamena.

En octubre de 2020, EH Bildu hizo una sugerencia al Gobierno Municipal para que el Ayuntamiento de San Sebastián contratara en los medios de comunicación en euskera, al menos, la misma cantidad de publicidad institucional que contrata en los medios de comunicación erdaldunes. Además, este grupo municipal propuso que esta medida entrara en vigor a partir del mes siguiente a la presentación de la sugerencia, y que, para ello, se integrara en los protocolos del departamento de comunicación. El Concejal delegado de Gobernanza contestó que se tendría en cuenta la propuesta.

Euskarako zinegotzi ordezkariak ere adierazi zigun Udal Gobernuak zehaztua zuela, abuztuan, Hedabide Agentziaren kontratua berritzeko baldintza teknikoen agirian Udalak martxan jarriko duen edozein komunikazio kanpaina euskarazko hedabideetan ere sartzeko beharra. Honela dago zehaztuta: ”Hiriko bi hizkuntza ofizialak kontuan harturik, publizitate espazioak euskarazko eta gaztelaniazko hedabideetan kontratatuko dira”.

El concejal delegado de Euskera nos comunicó que el Gobierno Municipal había establecido, en agosto, en el pliego de condiciones técnicas para la renovación del contrato a Hedabide Agentzia, la necesidad de incluir en los medios de comunicación en euskera cualquier campaña de comunicación que ponga en marcha el Ayuntamiento. En concreto, se establece que teniendo en cuenta las dos lenguas oficiales de la ciudad, los espacios publicitarios serán contratados en los medios de comunicación en euskera y castellano.

Aurten, iaz bezala, EH Bilduk galdetu egin die zinegotziei eta alkateari haien mendeko udal sailetan kontratatutako publizitatearen inguruan. Jasotako erantzunak aztertuta, argi ikusten da Udal Gobernuak jarraitzen duela publizitate instituzionala nagusiki erdal hedabideetan kontratatzen:

Este año, al igual que el año pasado, EH Bildu ha preguntado a los concejales y al alcalde sobre la publicidad contratada por los departamentos municipales de ellos dependientes. Del análisis de las respuestas recibidas, se constata que el Gobierno Municipal continúa contratando publicidad institucional principalmente en medios de comunicación en castellano:

• Udal Gobernuak 903.282,78 € erabili ditu

• El Gobierno Municipal ha destinado 903.282,78€

publizitate eta komunikazio kanpaina instituzionaletan, 2021ean baino % 45 gehiago. Edonola, % 7,6 besterik ez du kontratatu euskarazko hedabideetan; 2021ean baino 1,17 puntu gehiago.

• Era berean, Hedabide Agentziak euskarazko hedabideetan (Euskadi Irratia eta Gaztea barne) egin duen publizitate eta komunikazio kanpainengatiko gastua erabilitakoaren % 12,84 besterik ez da izan; 2021ekoaren proportzio beretsua.

• Turismo sailak 224.884,59 €tik 5.822,76 € besterik ez ditu erabili euskarazko hedabideetan.

• Donostia Sustapena izan da publizitatean hirugarren gastu handiena egin duen udal saila (126.115 €), baina 2021ean bezala, ez du kontratatu publizitaterik euskarazko hedabideetan.

• Donostia Kirola erakundeak apaldu egin du euskarazko hedabideetan kontratatu duen publizitatearen kopurua: gastuaren 2021eko % 9,2tik % 5era pasatu da 2022an.

Udal batzordean horien inguruan galdetuta, zinegotziak erantzun zuen aitortu beharra duela Hedabide Agentziarako ezarri zuten hizkuntza irizpideak, idatzita dagoen bezala eta datuen argitan, eragin eskasa izan duela, batetik, ez duelako ekarri hazkunde handirik euskarazko hedabideetan kontratatu den publizitate eta komunikazio ekintzen kopuruan; bestetik, kanpo geratu direlako ohiko hedabideak ez diren komunikazio euskarriak (sare sozialak); eta ez duelako ongi jasotzen publizitate euskarri bakoitzarengatik hedabide bakoitzean ordaindu behar den kopuruak eragiten duen nahasketa. Edonola, poztekotzat hartu zuen euskarri bakoitzaren hizkuntza kudeaketan udal sailen gehiengoak ele bietan egitea.

a campañas institucionales de publicidad y comunicación, es decir, un 45% más que en 2021. Sin embargo, en los medios de comunicación en euskera solo se ha contratado el 7,6%, 1,17 puntos más que en 2021.

• Asimismo, el gasto en campañas de publicidad y comunicación de Hedabide Agentzia en los medios de comunicación en euskera (incluyendo Euskadi Irratia y Gaztea) supone únicamente el 12,84%, una proporción similar a la de 2021.

• El departamento de Turismo ha gastado 224.884,59€, de los cuales solo 5.822,76€ han ido a parar a los medios de comunicación en euskera.

• Fomento de San Sebastián ha sido el tercer departamento municipal con mayor gasto en publicidad (126.115€), pero, al igual que en 2021, no ha contratado publicidad en los medios de comunicación en euskera.

• Donostia Kirola ha reducido la contratación de publicidad en los medios de comunicación en euskera, pasando del 9,2% de gasto en 2021 al 5% en 2022.

Preguntados por estas cifras en la Comisión Municipal, el concejal contestó que debía reconocer que el criterio lingüístico establecido para Hedabide Agentzia, tal y como está redactado y a la vista de los datos, ha tenido un impacto escaso. Por un lado, porque no ha supuesto un incremento importante en el número de acciones publicitarias y de comunicación contratadas en los medios de comunicación en euskera; y, por otro, porque han quedado fuera los soportes de comunicación que no son medios tradicionales (redes sociales); y porque no refleja bien la confusión que genera la cantidad a pagar por cada soporte publicitario en cada medio. En cualquier caso, se alegra de que, en la gestión lingüística de cada soporte, la mayoría de los

departamentos municipales lo haga en ambas lenguas.

Gure erantzunean aintzat hartu genuen zinegotziak egindako irakurketa, bat egiten duelako EH Bildurenarekin. Edonola, zenbait datu gehitu genituen, hala nola:

En nuestra respuesta tuvimos en cuenta la lectura realizada por el concejal, puesto que coincide con la de EH Bildu. En cualquier caso, añadimos algunos datos como:

• Udal Gobernuak euskarazko hedabideetan kontratatutako publizitatearen % 86,5 Hedabide Agentziaren bidez egin du (2021ean baino 11,5 puntu gehiago).

• El 86,5% de la publicidad contratada por el Gobierno Municipal en medios de comunicación en euskera ha sido realizada a través de Hedabide Agentzia (11,5 puntos más que en 2021).

• Udal Gobernuak bikoiztu egin du euskarazko hedabideetan (Euskadi Irratia eta Gaztea barne) egin duen publizitate eta komunikazio kanpainengatiko gastua; hori bai, ez proportzioan, kopuru absolututan baizik: guztira, 68.628,1 €.

• El Gobierno Municipal ha duplicado su gasto en campañas de publicidad y comunicación en los medios de comunicación en euskera (incluyendo Euskadi Irratia y Gaztea), pero no proporcionalmente, sino en términos absolutos: 68.628,1€, en total.

• Hedabide Agentzia erabiltzen ez duten udal sailek ia ez dute euskarazko hedabideetan kontratatu. Alde horretatik, nabarmentzekoa da, praktikan, Donostia Sustapenak eta Turismo Sailak beren mezuen informazioa ukatzen dietela euskarazko hedabideak jarraitzen dituzten donostiarrei eta gipuzkoarrei.

• Los departamentos municipales que no utilizan Hedabide Agentzia apenas han contratado en los medios de comunicación en euskera. En este sentido, cabe destacar que, en la práctica, Fomento de San Sebastián y el Departamento de Turismo niegan su información a los donostiarras y guipuzcoanos que utilizan los medios de comunicación en euskera.

Era berean, azpimarratu genuen Hedabide Agentzia izan dela publizitate eta komunikazio kanpainetako gastuaren zatirik handiena erabili duena: 462.397,25 €; 2021ean baino % 58 gehiago. Horrek argi erakusten du kontratuaren baldintza teknikoetan jasotako esaldi hori aldatu eta zehatzago idatzi behar dela, benetan eragin dezan gero eta proportzio handiagoan kontratatu daitezen publizitate eta komunikazio kanpainak euskarazko hedabideetan.

Asimismo, destacamos que Hedabide Agentzia ha sido la que ha utilizado la mayor parte del gasto de campañas de publicidad y comunicación, 462.397,25€, un 58% más que en 2021. Ello pone de manifiesto la necesidad de modificar esa frase, recogida en las condiciones técnicas del contrato, y redactarla de forma más precisa, de forma que tenga un impacto real en la contratación de campañas de publicidad y comunicación en mayor proporción en los medios de comunicación en euskera.

Horri lotuta, nabarmendu genuen beharrezkoa dela, udal komunikazioan berdintasunera

En este sentido, destacamos la necesidad de que, si, en la comunicación municipal, se quieren llevar

eraman nahi badira euskararena bezala beste errealitate sozial azpiratuak ere, Udalak jarduera komunikatibo bateratua ezartzea, aldian aldiko gobernuen gaindi. Horretarako, funtsezkotzat dugu ikuspegi hori lotuago uztea Euskara Planean, euskarazko hedabideetan ere garatu dadin, berdintasunez, Udalaren komunikazio jarduera.

a la igualdad tanto la realidad del euskera como otras realidades sociales silenciadas, el Ayuntamiento establezca una actividad comunicativa unificada, por encima de los gobiernos cambiantes.. Para ello, consideramos fundamental que este enfoque quede más afianzado en el Plan de Euskera, de forma que la actividad comunicativa del Ayuntamiento se desarrolle también, en igualdad de condiciones, en los medios de comunicación en euskera.

Horiek horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau egiten du:

Por todo lo expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari alda dezala Hedabide Agentziaren orain arteko kontratazio jarduera, aurten, gutxienez, bikoiztu dezan euskarazko hedabideetan jarriko duen publizitate kopuruaren ehunekoa.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a modificar la actividad contractual de Hedabide Agentzia para que, al menos este año, duplique el porcentaje de publicidad en los medios de comunicación en euskera.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari jaso dezala Hedabide Agentziaren hurrengo kontratazio esleipenean ikuspegi hori idazketa egokiago baten bidez, benetan eragin dezan gero eta proportzio handiagoan kontratatu daitezen publizitate eta komunikazio kanpainak euskarazko hedabideetan, berdintasunezko egoera erdietsi arte.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que incorpore esta perspectiva, en la próxima adjudicación de contratación de Hedabide Agentzia, mediante una redacción más adecuada, de forma que esta realmente incida en la contratación de campañas de publicidad y comunicación en mayor proporción en los medios de comunicación en euskera, hasta alcanzar una situación de igualdad.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ezar dezala udal jarduera komunikatiboaren hizkuntza kudeaketa bateratua, horretarako irizpideak ezarrita Euskararen erabilera normalizatzeko VII. Plangintzan.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a establecer la gestión lingüística unificada de la actividad comunicativa municipal, estableciendo para ello los criterios adecuados en el VII Plan de Normalización del Uso del Euskera.

Donostian, 2023ko martxoaren 23an.

San Sebastián, 23 de marzo de 2023

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Zigor Etxeburua Urbizu,
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Mikel Lezama Zubeldia y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 7 – (4) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 1 - EH BILDU PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 7 – (4) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 1 EH BILDU POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Alde Zaharreko elektrizitate hornidurako instalazioen egoera kontrolatzeko, segurtasunaren ikuspuntutik.**

“Ricardo Burutaran Ferré EH BILDU udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin, Parte Zaharreko hornidura elektrikoko instalazioek segurtasunaren ikuspuntutik duten egoerari buruz. Kontrol-mozio hau 2023ko martxoaren 20an Lurraldearen Garapen eta Plangintza Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.9. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la situación que presentan las instalaciones de suministro eléctrico, desde el punto de vista de seguridad, en la Parte Vieja.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción de control para su tratamiento en Pleno, sobre la situación que presenta las instalaciones de suministro eléctrico, desde el punto de vista de seguridad, en la Parte Vieja. La moción de control es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 20 de marzo de 2023.

JUSTIFICACIÓN

Behin baino gehiagotan eta hainbat forotan, interpelatu, galdetu eta/edo iradoki diogu Udal Gobernuari hiriko Parte Zaharrean hornidura elektrikoaren sistema sakon aztertzeko beharrari buruz.

Han sido varias las ocasiones y en distintos foros en los que hemos interpelado, preguntado y/o sugerido al Gobierno Municipal sobre la necesidad de acometer en profundidad la revisión del sistema de suministro eléctrico en la Parte Vieja de la ciudad.

Urrutiago joan gabe, 2022ko ekainean aipatu genion, azkeneko aldiz, gaia. Orduan ohartarazi genion Parte Zaharrean ostalaritza-jarduera ugari pilatzen ari direla, eta, horregatik, gero eta potentzia elektriko handiagoa behar dela. Gainera, kaleen tamainak, eraikinen zaharrak eta horietako askok zurezko egitura izateak inplikatutako eragile guztiak behartzen dituzte hornidura elektrikoko instalazioen egoera eta haien dimentsionamendu egokia arreta handiz kontrolatzera, jasaten duten karga dela-eta. Hori guztia aipatutako hirigune historikoan gerta daitezkeen gorabeherak edo suteak saihesteko.

Sin ir más lejos, la última en el mes de junio de 2022, donde ya advertíamos que la concentración de múltiples actividades de hostelería en la Parte Vieja que cada vez demandan una mayor potencia eléctrica, unida a las reducidas dimensiones de sus calles, a la antigüedad de sus edificaciones y al hecho de que muchas de ellas tengan una estructura de madera exige a todos los entes implicados ser especialmente diligentes en el control sobre el estado que presentan las instalaciones de suministro eléctrico y su correcto dimensionamiento, en atención a la carga a la que se ven sometidas. Todo ello en aras a evitar posibles incidentes o incendios en el referido casco histórico.

Litekeena da sutearen jatorria, kasu batzuetan, beste arrazoi batzuen ondorio izatea, baina, egia esan, azken urteotan, hainbat sute gertatu dira Parte Zaharreko jatetxe, taberna eta/edo okindegietan; eta establezimendu horiek guztiek, beren jarduerarako, potentzia elektriko handiagoa behar dute.

Aunque es posible que el origen del fuego pueda deberse en algunos casos a otras causas, lo cierto es que en los últimos años han sido varios los incendios acontecidos en restaurantes, bares y/o panaderías de la Parte Vieja; establecimientos, todos ellos, cuya actividad requiere una mayor demanda de potencia eléctrica.

Egia esan, potentzia-eskari handiagoak gainkargak eragin ditzake, Parte Zaharreko hornidura elektrikoaren sarearen egoera eta baldintza kaskarraren ondorioz.

Lo cierto es que una demanda más exigente de potencia puede suponer o causar situaciones de posibles sobrecargas debidas al deficiente estado y condiciones en que se encuentra la red de suministro eléctrico en la Parte Vieja.

Gainera, ixteko giltzetako batzuk atarian ez egoteak zaildu egiten du Udalaren Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuaren lana; are gehiago, sortzen diren egoera batzuk ez dira, segurtasun-ikuspegitik, egokienak zerbitzu horretako langileentzat.

Unido a ello, el hecho de que algunas de las llaves de paso no se encuentren ubicadas en el propio portal dificulta las labores de intervención del Servicio de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamento del propio Ayuntamiento, llegando incluso a plantear situaciones que desde el punto

de vista de seguridad tampoco son las más adecuadas para el citado personal.

Badakigu energia elektrikoaren enpresa hornitzaileek arduratu behar dutela lineak egungo baldintzetan edukitzeaz, baina, hori alde batera utzita, Udalak eskatu eta zaindu behar du auzo horretan bizi diren herritarrak segurtasun-baldintza egokietan egon daitezen.

Sabemos que son las empresas suministradoras de energía eléctrica las que deben encargarse de tener unas líneas en las condiciones actuales, pero, al margen de ello, lo cierto es el Ayuntamiento debe exigir y velar para que la ciudadanía que habita en dicho barrio se encuentre en las debidas condiciones de seguridad.

Hirigintza Sostengagarriaren ordezkariak erantzun zigun bat zetozela gure taldeak azaldutako kezkarekin, baina ez zuen inolako konpromisorik hartu segurtasunaren arloko arazo larria konpontzen hasteko epeei buruz.

La delegada de Urbanismo Sostenible nos contestó que compartían la preocupación suscitada por nuestro grupo, pero no llegó a comprometerse a plazo alguno con el que empezar a atajar la grave problemática señalada en materia de seguridad.

Hori guztia ikusita, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

A la vista de todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

